

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa jatetxe bat denez, guretzat guztiz funtsezkoa den jarduera ekoizpena (gure kasuan sukaldaritza, eta produktuen eraldaketa) da. Horretaz gain, salmenta oinarrizko jarduera izango da ere gure enpresan, (dendan bertan egongo da jendea salmentak egiten eta bezeroetaz arduratzen eta webgunea ere izango dugu) eta guk arduratuko gara honetaz, baita gure enpresaren eta



produktuen publizitatea egiteaz. Azkenean, banaketa ere izango da jarduera garrantzitsua gure enpresan, guk banatuko baititugu eskaerak produktuen etxeetara. Funtsezko jarduerataz gain, garbiketa ere da jarduera bat gure enpresarena, baina hain garrantzitsua ez denez, beste enpresa baten esku utziko dugu.